



# ¡ASMA!

**O**N Tiburtzio, sendakin yayuenetako-tzat zeukaten, bai erriyan ta bai inguruetan ere.

Baña guchik zekitena da, zurrungalaririk trebienetako ta gogorre netako bat zala.

Uda zan, bero zakarra, ego-aize edo nezka-zar aitzia-k kiskali biar-zituben baztar guztiyak; gaba zan, baña ez ordindik berandu, edo obetuago esateko ez oraindik goiz; eta gure On Tiburtzio-k ateratzen zuben zalaparta bat, Santa Mariya-ko organuak ateratzen ez duben bezelakua. ¡Ayek zurrungak! Bostgarren bizitzako atso lodi bat esnatu zan orru ayekin, ta ala ziyon:

—Alare, alare, turmoyak asi dira, ta laister degu eudiya!

Ontan esnatu zuten, ta iya jasteko betik gabe juan biar izan zuben On Braulio-ren echera, bada zirotenez oso gaizki arkitzen zan.

On Braulio berez erresildarra zan, gaztetan Ameriketa-ra juana ta andik aberatz purrukatuba etorriya.

Luzia etzan luze luzia, baña zabalian bazan luzian aña. ¡Urašen zan gizon biribilla!

Ala esaten zuten:

—¿Onek diruba egiñ? Onek billatu egingo zuben luraren gañian.

—Bai zera, patrikeran sartu-ko ziroten. Nola liteke bada diruba jasotzeko, ori lurreraño jeištia.

Ameriketatik etorri zan alargun, champoneko mataña bezelako alaba batekin. Shišita deitzen ziroten. Jateko ez det uste asko biar zubenik, baña jasteko bai. ¡Arren pirillin parpak, arren apainketak, arren dotoretasunak.

Echia jarri zuten ta kontu artzeko, Beizama-tik ekarri-re bai Mikolasa lengusuba.

Egun guchi barru deitu ziyoten On Tiburtzio sendakiñari, ikusi zuben amerikanua, ta baita agindu ere zer egin biar zuben andik aurrrera.

On Tiburtzio irteterakuan galdetu zion Mikolašak:

—¿Zer du lengusubak?

—Asma.

—Guk asmatze ezkerro zer duben, ez ge-neukan sendakiñen biarrik.

—Ez emakumia, asma esan dizut, ¿ez al-dakizu zer dan asma?

—Ez.

—Ori bada.

Gerotzik sendakiña juaten zitzayon noi-zian bein amerikanuari, ta sendatzeko ale-giñak egin ere bai.

Ala bada esantako gau artan, erdi lo ta erdi esna irichi zan amerikanuaren echera. Ango zalapartak, ango deadarrak, ango ka-rrašiyak. Gela bete jende basegon ta denak eruen gisa ojuka ari ziran.

An zegon Shisita ere, oitu bezela apain-ketaz josiya. ¡Marama zirudiyen! Katillu bat salda bero berua eskubetan zubela an zebi-lleñ batetik bestera zer egiten zuben etze-kiyela.

On Tiburtzio agertu zanian gelako atietan, denak bere gana alderatu ziran; baita Shišita ere, ta au bere larriyakin chirrištatu zan, ta an juan zizayon katillu salda On Tiburtzio-ren buru gañera.

Onek buruba kiškaltzen ulertu zubenian, asi zan ojuka, ta lenago guchi baziran, orra orain bat geyago marruaz aditzeko.

Oñazia igaro zitzayonian bigaldu zituben danak gelatik kampora ta gelditu zan bakarrik mintsubarekin. Izan ere ainbeste jenderekin ito-re egingo zuten gizarajua.

Begiratu zion On Braulio-ri, ta gaizki arkitu zuben.

—Ia, asi zaitia esaten nik iſiltzeko agindu arte: bat, bi, iru.



SISITA

Eta On Braulio gaizua asi zan doi doyian: bat, bi, iru, lau.....

Mikolaša ta Shišita bitartian, an zeuden bildurrez josiyak atien al-damenian, ta Shisitak galdetu zuben:

—¿Ill ote da?

—Ez; erantzun zيون Mikolašak belarriya atia-ri alderatubaz, kontubetan ari da.

—¿Kontubetan? ¡Alajaña, ez dauka umore charra!

—Begira nola diyon: amabost, amasei, amazazpi.

On Tiburtzio, iſirita pacharan bere buruba arkitu zubenian, gaiſuaren marmarisu arrekin geruago ta logabe geyago sentitzen zuben ta azkenik zerraldo lo gelditu zan.

Eta bitartian On Braulio-k jarraitzen zيون bere agindubari: berrogei ta bi, berrogei ta iru, berrogei ta lau.....

Alakoik batian Shiſitak eta Mikolašak orru bat entzun zuten, lenbizi ill, illa, geruago senduago ta gogorrago ta tartian tartian aditzen zan: larogei ta bederatzi, larogei ta amar, larogei ta amaika.....

—¿Zer da ori?, ziyoten iseba illobak.

Eta orkesta soñubakin, kantariyak aitzen diran bezela, orru aren laguntzarekin entzuten zan eriyaren oju aula, kemen gabia: eun ta ogei, eun ta ogei ta bat.....

Larritu ziran oso, ta senda-ur bat erakusteko aitzakiyakin sartu ziran gelan ta orduban ikusi zuten, On Braulio kemenik batere gabe ari zala: eun ta larogei ta amazazpi, eun ta larogei ta emezortzi.....; eta On Tiburtzio berriz lo bete betian zurrungaka.

Orduban esan zuben Mikolašak:

—¿Asma e? Orain asmatu det zer dan.

A. DARRA

